

Hutsune beteezina sagardogileen familian

Bizitza erdia sagardogintzari eskaini eta gero, Hernaniko Otsua-Eneko Ximonek

agur esan zigun 2020ko ekainaren 30ean

15 | HERNANI

Sagardogile eta sagardozaileen familiak kolpe ikaragarria jaso zuen ekainaren 30ean Hernaniko Otsua-Enea sagardotegiko Ximon Etxeberría hil zela jakin zuenean. 62 urte zituen eta bizitza erdia baino gehiago eskaini zion sagardogintzari.

Osiñaga auzoko Otsua-Enea baserrian jaioa, sei senideen artean zaharrena zen. Hainbat urtetan baserrian eta kanpoan lanean aritu ostean, 1987an erabaki zuen bere jaiotetxearen ondoan eraikuntza berri bat egin eta bertan sagardotegia jarzea.

Lau anaiak hasi ziren langintza berri horretan, eta urtez urte ospe handia hartzen joan zen Otsua-Eneko sagardoa. Ximonen izaerak ere lagundu zuen horretan. Sagardotegiko giroaz gain, asko maite zituen sagardoaren aitzakian antolatzen ziren jaiak eta txapelketak, eta horregatik egin zen ezaguna ia Gipuzkoa osoan. Plazagizona zen, beti hizketarako prest.

Ximonek gertutik ezagutu zuen azken hamarkadetan sagardotegietan bizi izan den ohi-tura aldaketa. «Astegunean zehar sagardoa probatzera etortzen zen sagardozaile belaunaldi hura galdu egin da», aitortzen zigun orain dela hiru urte egindako elkarrizketa batean.

Horregatik, bere kezka nagusiakoa zen «nola erakutsi gazte jendeari txotxeko denboraldiaz gain urtean zehar otorduetan sagardoa ere edan dezaketela, aurreko belaunal-

diek egiten zuten bezala», zioen Ximonek.

Kolpe latza jaso arren, Modesto eta Joxe Angel anaiek aurrera egin dute sagardotegiarekin eta aurten ere sagardozaile guztiei beren etxeko ateak zabaltzeko prest daude, egoerak uzten duen momentuan noski.

1987 URTETIK

Osiñaga auzoko Otsua-Enea baserrian jaioa, sei senideen artean zaharrena zen. Hainbat urtetan baserrian eta kanpoan lanean aritu ostean, 1987an erabaki zuen bere jaiotetxearen ondoan eraikuntza berri bat egin eta bertan sagardotegia jartzea.

BERRIRO PREST

Kolpe latza jaso arren, Modesto eta Joxe Angel anaiek aurrera egin dute sagardotegiarekin eta aurten ere sagardozaile guztiei beren etxeko ateak zabaltzeko prest daude, egoerak uzten duen momentuan noski.



Ximon Etxeberría, Otsua-Eneko kupel artean.

Jon URIBE | FOKU

IV. SAGARDO FORUMA, AZAROAN

Pandemia egoerak ahalbidetzen badu, nazioarte mailan sagardoaren hitzordu garrantzitsua bihurtu den Sagardo Forum ekitaldiaren IV. edizioa aurten azaroaren amaieran egingo da.

Sagardoaren lurraldeak antolatzen duen ekitaldia, aurreko edizioetan bezala, lau arlotan egituratuko da. Hala, sagarrari eta sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak, sagasti nahiz sagardotegietara bisitak, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta Nazioarteko Sagardo Azoka izango dira.

Sagardo Forumak euskal sagardoaren kultura nazioartean kokatzeko funtzio garrantzitsua bete du orain arte, gure mugetatik haratago sagardoaren kultura ezagutzera eman eta nazioarteko sagardoak bertan ezagutzera emanaz, nazioarteko harremanak sendotu eta nazioartean sagardoa ekoizten duten herrialde edo norako ezberdinekin osatutako Ciderlands sarea osatzera iritsi arte.

Sagardo Forumaren inguruko informazioa www.sagardoforum.eu s orrialdean eskuragarri egongo da eta jarduerak hauetan parte hartzeko izen-emateak webgunetik bertatik gauzatu ahal izango dira.



Sagardotegia

OTSYA ENEA

Osinaga Auzoa · t 943 55 68 94 · HERNANI